



ERABAKIA, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK GAZTERIA ETA KIROL  
ZUZENDARITZAREN 2014KO ABENDUAREN 23KO EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO  
ERREKURTSOA BAIESTEA EBAZTEN DUENA

---

Espediente-zenbakia: 4/2015

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren 2014ko abenduaren 23ko Ebazpenaren aurkako errekurtsoa jarri zuen 2015eko urtarrilaren 21ean; adierazitako Ebazpenaren bidez, diziplina-zigorra ezarri zitzaion dopinari buruz indarrean dauden arauak hautsi izanagatik.

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzeko onartzea eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari espedientea eskatzea erabaki zuen.

**Hirugarrena.**- 2015eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari entzuteko izapidearen ondoren errekurtsogileak eskatutako kautelazko neurria ematea erabaki zen, eta 2014ko abenduaren 23ko Ebazpenaren betearazpena eten zen, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa ebatzi arte Federazioaren lizentzia 2 urteko aldi batez eteteko zigorra ezartzeari dagokionez.

**Laugarrena.**- Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak espedientea eman zuen, eta alegazio-idazki bat aurkeztu zuen 2015eko otsailaren 4an.

**Bosgarrena.**- Errekurtsoa izapidetzean, 10/2014 zenbakiko espedientea froga gisa gaineratzea ebatzi zen, errekurtsogileak eskatuta..

Bestalde, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari egindako kontrolean esku hartu zuten agenteei lekuko gisa deklarazioa hartzea erabaki zen ofizioz.



## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, horixe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 106.2.c) artikuluan; urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, kirol-diziplinari buruzko Arautegia ezartzen duenak, 29. artikuluan; eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

**Bigarrena.-** Errekurtsioaren xedea **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** kirolari jaunari diziplina-zigorra ezartzen dion Gazteria eta Kiroleko zuzendariaren 2014ko abenduaren 23ko ebazpena da.

Ebazpen hori partzialki txertatuko dugu ondoren:

*LEHENA.- **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jauna kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 23.1.f) artikuluan aurreikusitako arau-hauste oso larri baten egiletzat hartzea; arau-haustea 2013ko uztailaren 14an egin zitzaion dopin-kontrollean egin zuen.*

*BIGARRENA.- **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunari Federazioaren lizentzia 2 urteko aldi batez eteteko, edota, gaur egun Federazioaren lizentzia eduki ezean, lizentzia hori aldi berdin batez lortu ezin izateko zigorra ezartzea.*

Kirolariaren zigorra eragin zuten gertakariak 2013ko uztailaren 14an gertatu ziren, Galarleiz Maratoia izeneko kirol-proban. Izan ere, proba horretan ezin izan zitzaion dopinaren aurkako testa egin lehiaketaren lekuan, eta Gurutzetako Ospitaleko larrialdi-zerbitzuan egin zitzaion (kontrol-agentek bertaraino joan ziren).



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari bigarren dopin-kontrol bat egin zitzaion Laudioko ziklo-kros proban, 2013ko azaroaren 2an.

Bi lagin izanik, eta lehena kontrol-agenteeek kirolaria zuzenean ikusi gabe egin zenez gero, administrazio eskudunak beharrezkotzat hartu zuen DNAko proba bat eskatzea, bi laginak pertsona berarenak ziren egiaztatzeko, eta laborategi jardulearen erantzuna negatiboa izan zen.

Errekurritutako ebazpenak adierazten du, gertakarien azalpen luze baten ondoren, aurkeztutako bigarren lagina –2013ko azaroaren 2koa– zalantzarik gabe kirolariarena denez gero ondorioztatu beharra dagoela kirolari beraren bi lagin fisiologikoetako DNA bat ez etortzea dopin-kontrolko agenteei aurkeztutako lagin fisiologikoen alterazio, faltsutze edo manipulazioaren ondorioz gertatu dela, edo laginetako baten kasuan bederen (lehen laginean, 2013ko uztailaren 14ko dopinaren aurkako kontrolekoan).

Errekurritutako ebazpenak gaineratzen duenez, *egoera hori hertsiki lotuta dago XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak 2013ko uztailaren 14an dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 23.1.g) artikuluan aurreikusitako arau-hauste oso larri bat egin izanarekin. Artikulu horrek honako hau dio: "Dopinaren kontrol- eta zigortze-prozeduretako edozein osagai aldatu, faltsifikatu edo manipulatu".*

**Hirugarrena.-** Ebazpenaren aurka, errekurtsua jarri zen Batzorde honetan bidezko epearen barruan, eta hainbat gai aipatzen ziren bertan, prozedurari lotutakoak zein sakonekoak.

Lehenik eta behin, prozedurari lotutakoak aztertuko ditugu:

Errekurtsuan, espedientearen iraungipena izan dela adierazten da, izapidetzeak legeria aplikagarrian (hots, 12/2012 Legearen 37. artikuluan) kontuan hartutako 6 hilabeteko epea gainditu baita.

Alegazioak ezin du aurrera egin. Izan ere, diziplina-espedientea irekitzeko probidentzia 2014ko uztailaren 16koa da, eta diziplina-ebazpena 2014ko abenduaren 31n jakinarazi zen; nabaria denez, aldi hori ez da iristen agindutako legezko gehieneko epera.



**Laugarrena.-** Errekurtsogileak argudiatu duenez, Euskadiko Federazioak ez du eskumenik kirolariari diziplina-zigorra ezartzeko, zigorraren jatorrian dagoen jarduna *lehiaketa Federaziotik kanpoko eta Federazioak antolatu gabeko lehiaketa baten esparruan gertatu baitzen.*

Hainbat oinarri juridiko aipatu ditu argudio gisa:

- (a) Federazioaren dopinaren aurkako araudiak (2. eta 3. artikuluetan) lehiaketa federatuen eremura murrizten du bere aplikazioa; \$\$\$\$
- (b) diziplina-ahala, Estatuko edo Autonomia Erkidegoko kirol-lizentzia homologatuarekin egindako kirol-jarduera baten kasuan, Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziari dagokio (12/2012 Legearen 37.1 artikulua), eta
- (c) Kirol-jardueretan kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoari; Lege horren arabera, *kirol-federazioek antolatutako lehiaketetan kirol-lizentzia duten kirolariak baino ez dira jartzen dopin-kontrolen eta zigor-erregimenaren pean, osasuna babesteko kontrolak aparte utzi gabe.*

Azaldutako argudioek ez dute kontuan hartzen Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen aplikazioa kasu honetan.

Lege horren 1. artikulua zehazten duenez, Legearen aplikazio-eremu subjektiboa federazio-lizentzia duten kirolari guztiak hartzen ditu bere baitan, eta artikulua horren 2. idatz-zatiak honako hau finkatzen du esanbidez: *Legearen eremu material orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako kirol-jarduerak osatzen dute, federatua izan edo ez izan” [azpimarratua gurea da].*

Artikulu beraren 5. idatz-zatiak zehazten duenez, *Lege honen aplikazio-eremu subjektibo orokorrak euskal federazio-lizentzia duten kirolari guztiak hartzen ditu bere baitan, unibertsitatekoa zen eskolako izan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan antolatzen diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko baimena ematen duen federazio-lizentzia dutenak, baita Euskal Autonomia Erkidegoan lehiatzen diren kirolari guztiak ere (...). Aplikazio-eremu subjektiboa esandakoa izanik ere, kirolari horiek Estatuko edo nazioarteko kirol-jardueretan parte*



*hartzen dutenean edo eremu horretako lizentziak ere izateagatik, Estatuko eta nazioarteko xedapenak bete beharko dituzte”.*

Errekurtsoak Estatuko legearen izaera organikoa azpimarratzen du, eta Autonomia Erkidegoko arauaren gaineko nolabaiteko lehentasun hierarkiko bat edota azken hori Estatuko legearekin nolabait ere ordezkatzeari iradokitzen du. Horren ondorioz, diziplina-zigorra ezin izango litzateke aplikatu lehiaketa ofizialen eremutik kanpo.

Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago bi legeak arlo horretan dagozkien eskumeneren isla direla (Autonomia Erkidegoaren kasuan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluan *euskal kirola antolatze*ko kontuan hartzen duen eskumena), eta operadore juridikoak ezin du indarrean dagoen eta aplikatu behar den arau bat ordezkatu.

Autonomia Erkidegoko legegilea, bere eskumena baliatuz, dopina lehiaketa ofizialetan ez ezik federazio-eremutik kanpo egiten diren lehiaketetan ere desagerraraztearen alde agertu da.

Eta agindu horri jarraitu beharko diote haren aplikazio-eremuan sartuta dauden kirolari guztiek, eta, horien artean, errekurtsogileak. Halaber, euskal legeak diziplina-prozeduraren arloan eskuduntzat hartzen dituen organoen jardunari jarraitu beharko diote; nolahi ere, jakina, beste aurreikuspen eta organo batzuei ere jarraitu beharko diote, *Estatuko edo nazioarteko kirol-jardueretan parte hartzen dutenean edo eremu horretako lizentziak ere izateagatik*.

**Bosgarrena.-** Argudiatzen denez, dopinari buruzko araudia urratu da, eta ez dago arau-hausterik *kirolariak dopin-kontrola aldatu, manipulatu edo faltsifikatu izanagatik*.

Errekurtsoan azpimarratzen denez, Gurutzetako Ospitalean 2013ko uztailaren 14an egindako lagin-bilketak ez zituen bete araudiak –apirilaren 17ko 641/2009 Errege Dekretuak– zehazten dituen eskakizunak.

Espedientearen azterketak egiaztatu egiten du egindako kontrolaren berezitasuna.



Esku hartu zuten agenteek informazio osagarriaren formularioan jaso zutenez, gernu-egitea zuzenean ikusi gabe egin zen. Agenteen kontaktaren arabera,

..... Azkenean, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak lortu zuen, ustez, gernu egitea bidezko analisi medikoak egiteko (ustez diogu, dopin-agenteek zuzenean ikusi gabe egin baitzuen).

Txirrindulariaren pribatutasunaren gaiak sortutako arazoa eta maila guztietako deserosotasuna kontuan hartuta, prozesuaren diagnostiko klinikorako jasotako gernua dopin-laboregiko kontrolerako flasko homologatuetara aldatzea planteatu zen, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunaren oniritziarekin.

10/2014 zenbakiko espedientean egindako lekuko bidezko frogan (errekurtsogileak proposatutako froga gisa txertatu da), kontrol-agenteek onartu zuten prozedura irregularra izan zela, ez baitzen egin ohiko prozeduren arabera (“Gurutzetako ibilbidea ez da zuzena....Gaizki egina dago.....Gurutzetara joan garenetik gaizki zegoen”).

Errekurtsu honen azterketan berriz ere laginaren bilketaren inguruko zirkunstantzia zehatzei buruzko galdeketa egin zitzaion, eta kirolaria gernu egiten zuzenean ikusi ez zutela berretsi ondoren, honako alderdi hauek azaldu zituzten (eta biak bat etorri ziren):

- ✓ lagina ospitaleko larrialdi-zerbitzuko dependentzietan helburu medikoekin aztertzeo bildutako gernuaren soberakina zen.
- ✓ lagina kirolariarekin egon zen larrialdi-zerbitzuko medikuak eman zion kontrol-agenteei.
- ✓ lagina **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak eman zion zuzenean mediku horri, baina agenteek ez zuten entrega zuzenean ikusi.
- ✓ **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jauna ez zegoen lagina jaso zuten unean.
- ✓ ezin dute ziurtatu hirugarren batzuek **-XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunaz eta adierazitako medikuaz gain– lagina agenteek jaso aurretik eskuragarri izan zuten ala ez.



\$\$\$\$ Agenteek kontatu zutenez, entrega horretatik aurrera **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak zuzenean ikusi zuen gernua bildu zen ontzitik berezko analisi-flaskora (A flaskora) eta kontraanlisi-flaskora (B flaskora) aldatzeko (laginen estankotasuna bermatzeko tapoiekin) prozedura osoa, eta adostasuna eman zion prozesu osoari.

Dopin-kontrolako formularioan kontrol-agenteen eta zigortutako kirolariaren sinaduratik ondoriozta litekeen adostasunak ezin ditu baliozkotu lagina agenteen eskuetan egon arte gertatutako gorabeherak, une horretatik aurrera kontrola erregelamenduzko eskakizunetara egokitu bazen ere.

Azaldutako aurrekarietatik –espedientean jasota dagoen eta egindako lekuko bidezko frogek berretsi duten froga dokumentalaren edukitik– ondoriozta daitekeenez, prozedurak ez zien jarraitu *laginak hartzeko eskakizun orokorrei* (641/2009 Errege Dekretuaren 78. artikulua eta hurrengoak).

Bereziki, 79. artikulua (*lagina zuzenean hartzeko gelan, gernu egiteko unean kirolaria eta laginak biltzeko taldeko pertsona bat baino ezin izango dira sartu*), 86. artikulua (*gernu egitea zuzenean edo gelako ispilu baten bitartez, eragozpenik eta mugarik gabe ikusi ahal izateko eskatzen duena*) eta 87. artikulua (*laginen ontziratzea arautzean une zehatz horretan gernua eskura izan dezaketen bakarrak kirolaria eta kontrol-agente jardulea izango direla bermatzen duena*) hautsi direla egiazta daiteke.

Gorabehera horien aurrean, nahitaezkoa da zigor-erabakian izan dezaketen eragina balioestea.

Gogoratu beharra dago kasu zehatz honetan **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunari egozten zaion arau-haustea gernu-lagina manipulatu izana dela, hain zuzen ere (*edozein osagai aldatu, faltsifikatu edo manipulatzeara...*).

Zigor-ebazpenaren araberako arau-haustea egiaztatuko lukeen egozketa-froga zera da, bi une kronologiko desberdinetan hartutako bi gernu-lagin daudela, eta haien DNAko analisisiek agerian utzi dutela gernu horiek pertsona berarenak ez direla .



Gernu-laginetako bat agenteek zuzenean ikusita hartu zela kontuan hartuta, zigor-ebazpenak ondorioztatzen du bidezko protokolei jarraituz hartu ez zen gernu-laginean gertatu zela aldaketa.

Premisa hori onartuta, manipulazioa ezinbestez zigortutako kirolariak egin zuela ondorioztatu du.

Ondorioa egokia izango litzateke hirugarrenen edo, oro har, faktore exogenoen injerentziarik eza bermatzen duten neurri eta protokoloak bete izan balira.

Aztergai dugun kasuan, ordea, neurriak eta protokoloak ez dira bete. Ez, behintzat, oso-osorik.

Ezin da baieztatu *zaintza-kateari* jarraitu zaionik eta, beraz, kirolariak entregatutako lagina kontrol-agenteak bildutako bera zenik.

Horregatik sortu dira aldaketaren egiletzaren edo jatorriaren inguruko zalantzak. Eta aldaketaren une zehatzaren inguruko zalantzak ere bai, ezin baita baztertu dopin-kontrolaren prozesuan hirugarrenek esku-hartu zutela (utzikeriagatik edo konturatu gabe bada ere).

Lagina biltzeko moduak arrazoizko zalantza sorrarazten du aurkeztutako egozketa-frogaren nahikotasunaren inguruan.

Azken batean, froga ez da nahikoa, ezin baita baztertu kirolariarekin eta kontrol-agenteekin – bilketaren unean lagina eskuragarri izan zezaketen pertsona bakarrak, 641/2009 Errege Dekretuaren 86. artikulua betetzen zen kasuetan– zerikusirik ez duten hirugarren batzuek manipulazioa egin izana.

Hortaz, Batzorde honen ustez, errekurritutako ebazpenaren oinarri diren frogak errugabetasun-presuntziorako konstituzio-eskubidea gainditu ezin dutenez gero, bidezkoa da jarritako errekurtsioa baiestea.



**Seigarrena.-**

Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 31/2005 Dekretuaren 17.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, ondorioz gabe utzi behar da *2014ko abenduaren 23ko Ebazpenaren betearazpena eteteko kautelazko neurria, Federazioaren lizentzia 2 urteko aldi batez eteteko zigorra ezartzeari dagokionez.*

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

**ERABAKI DU**

**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren 2014ko abenduaren 23ko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua baiestea, eta ondorioz gabe uztea Ebazpen horren betearazpena eteteko kautelazko neurria.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edota errekurtsogileen helbidearen arabera dagokien epaitegian (helbidea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean badago), bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 19a



José Ramón Mejías Vicandi  
KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA